



# ANTOLATZAILEEN AURKEZPENA

## ANTOLATZAILEEN IZENEAN HITZA HARTUKO DUTEN HIZLARIAK

- **Brian Currin**, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kidea (HNT)
- **Raymond Kendall**, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kidea (HNT)
- **Alberto Spectorovsky**, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kidea (HNT)
- **Anaiz Funosas**, Bake Bideako lehendakaria
- **Agus Hernan**, Foro Sozial Iraunkorraren koordinatzailea

## ANTOLATZAILE DIREN ERAKUNDEAK

### • HARREMANETARAKO NAZIOARTEKO TALDEA

2010eko martxoan, azken urte hauetan Euskal Herriko gatazkarentzako konpobide adostu eta demokratiko baten bilaketa errexten ibili den Brian Currin abokatu hegoafrikarrak Bruselako Adierazpena deiturikoa bultzatu zuen.

Identifikatutako beharra zabalki konpartitua zela egiaztatu ondoren, taldea osatuko zuten kideak aukeratzeko kontaktu prozesua hasi zen, bake prozesuetan, gatazken eraldaketan, justizia trantsizionalean edo gatazken ondorengo normalizazioan esperientzia baloratuz, besteak beste.

Harremanetarako Nazioarteko Taldea 2010eko azaroaren 12an eman zen argitara, Brian Currinek Euskal Herriko eta Espainiako eragile politiko eta sozialekin aurrera eramandako kontsulta prozesuaren emaitza bezala.

Taldea, nazioarteko 6 adituz osatua da :

- **Brian Currin**, apartheidaren aurka borroka egin zuen abokatu zuri hegoafrikarra. Bere herriko Bakearen eta Berradiskidetzearen Komisioaren sorreran parte hartu zuen.
- **Silvia Casale**, kriminologa da. 1998tik Ipar Irlandako Sententzien Errebisio Batzordeko kide



izan da. 1997an Torturaren Prebentziorako Europar Komiteko kide izan da, eta 2000tik 2007ra bitarte bere lehendakaria izan zen. NBEko torturaren saihezpenerako azpibatzerdeko lehenengo lehendakaria izan zen, 2007tik 2009ra. 2010ean Europako Batzordeko gomendalaria da, tortura eta tratatu txarren desagerpenerako lanak eginez

- **Alberto Spektorowski**, Tel Aviveko Unibertsitateko Zientzia Politikoetan irakasle titular asoziatua da. Columbia University, University of Wisconsin eta Interdisciplinary College de Herztlia unibertsitateetako irakaslea izan zen ere.

- **Nuala O'Loan**, Irlandako zati honetarako garatu den autonomia sisteman lehen Police Ombudsman (Polizia gaietarako ararteko edo "herriaren defendatzailea") izan zen 1999 eta 2007 artean.

- **Pierre Hazan**, NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Arduradunaren bulegoan lan egin du eta United States Institute for Peaceko ikerlaria da. Balkanetan eta Afrika Lakuetakoko gatazketan kazetaritza lanak egin ditu

- **Raymond Edward Kendall** Interpoleko idazkari nagusia izan zen 1985etik 2000 arte.

HNTren eginkizun zehatza hau da:

- Ezker Abertzalearen legalizazioa bultzatu, errextu eta ahalbidetzea;
- Konfiantza eragiten duten neurriak bultzatzea, hala nola:
  - bere jarduera politikoa murrizten dituen neurri bereziak gainditzea eta
  - espetxe-politika egungo politika eraldatu eta berrira egokitzea;
- Alderdiak animatu eta zerbitzatu, hala eskatzen den neurrian, elkarrizketa politikorako egutegi bat prestatuz eta garatuz;
- Indar politikoek eskatzen duten neurrian, elkarrizketa eta negoziazio alderdianitza bultzatu, errextu eta ahalbidetzea, inongo baldintzarik gabe eta emaitza aurretik zehaztu gabe, Mitchell Printzipioen menpe. Gatazka politikoa gainditzeko akordio barneratzaile bat lortzea litzateke elkarrizketa eta negoziazio alderdianitzaren helburua;



- Aldeek eskatuta, bitartekari jardutea blokeoa gertatuz gero;
- Bake-prozesu arrakastatsu bat egiazki posible dela helaraztea gizarteari, hori sinesteko konfiantza sortzea.

Informazio gehiagorako: <http://icgbasque.org>

### • **BAKE BIDEA**

2012ko urriaren 12an sortua, Bake Bidea Ipar Euskal Herriko mugimendu zibil bat da. Elkartetarik, sindikatuetatik eta alderdi politikoetatik datozen pertsonak, hautetsi eta jurista batzuek edo norbanakakoek osatzen dute. Bake bidearen helburuak:

- Jendartea bere osotasunean sentsibilizatzea eta mobilizatzea bake prozesuaren gaiari buruz.
- Aieteko bide orriaren inguruan eztabaida eta iniziatiba guneak sortzea

Bake Bideak bere sorreratik gertakari desberdinen antolaketan parte hartu du :

- **Baionako Bakerako foroak** (2012/2014)
- **Tokiko biltzar publikoak** (2013)
- **Iruña, Bilbo eta Gernikako bake prozesua indartzeko Foro sozialak** (2013/2014/2016)
- **Euskal Herriko bakearen aldeko konferentzia humanitariora Parisen** (2015)
- **“Presoak eta bake prozesua” mintegia, Pariseko Sorbona Unibertsitatean** (2016)\***Euskal herriko edo nazioarteko bake prozesuko eragileekin topaketak** (2012tik 2016ra)
- **Foroa “Armagabetzea bake prozesuaren zerbitzuko”** (2017-ko martxoaren 17 eta 18an)
- **Biarritzen Foroa “Armagabetzea eta urte bat eta gero: bilana erronkak etaperspektibak”** (2018ko apirilaren 6 eta 7an , Baiona eta Biarritzen)
- **“Arbolaren egia” eskulturaren estrenaldia** (2018ko apirilaren 8an, Baionan)

Informazio gehiagorako: [www.bakebidea.com](http://www.bakebidea.com)



## • FORO SOZIAL IRAUNKORRA

Foro Sozial Iraunkorra espazio dinamiizatzaila bat da eta “gatazkaren ondorioen” inguruan lanketa zeharkakoa eta inklusiboa sustatzen du. Gaur egun, gizarte zibileko 18 entitatek osatzen dute, beste norbanako askorekin batera: ELA, LAB, CCOO, Steilas, ESK, Ahotsak, Bake Bidea, Uharan, Baketik, Gernika Batzordea, Sare, Etxerat, Paz con Dignidad, Bilgune Feminista, Herri Eliza, Antxeta Irratia, Hitz&Hitz eta Egiari Zor Fundazioa.

Foro Sozial Iraunkorra 2016. urteko ekainean sortu zen, konponbidea oztopatzen duten korapiloak askatzen laguntzeko asmotan gizarte zibiletik eginiko ekarpen gisara, eta bere lanerako erreferentzia bezala hartzen ditu 2013. urtean Bilbo eta Iruñean ospatutako lehen Foro Sozialetik ondorioztatutako 12 gomendioak. Horiek, honako 5 lan ildotan laburbildu daitezke:

1. Bake prozesuaren erronka nagusienei aurre egiteko oinarritzko kontsentsuak lortzea.
2. Armagabetze eta deuseztatze prozesu bat diseinatzea, martxan jartzea eta bururaino eramatea.
3. Preso edo ihesean dauden pertsonen bergizarteratzea erraztea.
4. Giza eskubideak sustatu eta bermatzea.
5. Iraganari zintzotasunez aurre egiteko, egia eta memoria babestu eta zaintzea, horrela etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak eraikitzeko.

Sorreratik bi urte pasa ostean, Foro Sozial Iraunkorra erreferentzia garrantzitsu bilakatu da bake prozesua babesteko eta laguntzeko lanari dagokionez. 2011. urtetik errotuta zeuden hainbat blokeo egoera, bakean oinarritutako bizikidetzaren baten eraikuntza zailtzen zutenak. 2017. urtetik aurrera, ordea, bake prozesuak paradigma aldaketa sakon bat jasan zuen, bereziki, Foro Sozialak sustatutako triangulazioaren eskeman oinarritutako akordioei esker, euskal instituzioen, nazioarteko komunitatearen eta gizarte zibilaren artean. Aldaketa hori, lortutako emaitzei erreparatuta da argigarri:

- ETArekin armagabetzea
- Biktimen gaiari dagokionez izandako aurrerapenak (Eusko Legebiltzarra eta erreparazio ekimenak).



- Espetxe politikaren aldaketa gauzatzeko eraikitako akordiorako espazio berriak.

Hala ere, bidea dago oraindik egiteke. Foro Sozial Iraunkorraren lan ildo berriak honakoak dira:

- Preso, ihesean edo deportatuta dauden pertsonen bergizarteratzea sustatzea eta erraztea, armagabetzearekin baliatutako triangulazio eskema antzeko batean oinarrituta eta bilatuta euskal lurraldeetako gobernuen, preso eta iheslarien kolektiboen eta gizarte zibilaren parte hartzea.
- Aurrerapausoak ematea biolentzia mota guztien ondorio diren biktima ororen errekonozimenduari dagokionez. Horrez gain, eztabaida zintzo bati aurre egitea ebatzi gabeko kasuen inguruan, bilatuaz beste prozesu batzuetan trantsizio justizia deitua izan den mekanismoaren karakterizazio propio bat eta elkarlanean jardunaz euskal lurraldeetako Legebiltzar eta Gobernuekin.
- Memoria inklusibo baten alde lan egitea.

Informazio gehiagorako: [www.forosoziala.eus](http://www.forosoziala.eus)

#### **GATAZKAREN KONPONBIDEA AITZINARAZTEKO NAZIOARTEKO TOPAKETAREN BAHESLE DIREN ERAKUNDEAK:**

- Conciliation Resources
- Berghof Foundation